

## **Herri baten anima**

*Herri baten anima, herri baten bizitza, ari dira hiltzen  
Herriaren negarra zigorraren zartada ez zaiku irixten  
Ez asmatu hitz gozorian iñor engañatzeko  
Pistolak ez dira naikoak ixildu arazteko  
Indarrarren menpean bildurraren morrontzan  
defentsarik gabe  
Bizitza antzututa etorkizuna beltza heriotza jabe  
Utzi diferentzi makurrak aztu ezin ikusiak  
Lanean elkartu ditzala bakearen argiak.*

## **L'âme d'un Pays**

*Le fer, le feu, le fouet seront impuissant à faire taire et  
à tuer l'âme d'un Pays  
celui-ci unit ses forces par  
delà les divergences dans une perspective de paix et  
de liberté.*

## **Goizeko Izarra**

*Goizeko izarra guztiz argia  
Mantxarik gabe, ikusten da  
Bainan maitea zure ondoan  
Argiagoa da  
Agur maitea guztiz argia  
Agur agur betiko agur.*

## **L'étoile du matin**

*Chant d'amour dans lequel la bien aimée est comparée  
à l'étoile du matin brillant au firmament*

# **Biziaren izenean**

*Gazte gira eta primaderan sartzen  
Indar oldartsuak gu baitan senditzen  
Ez eman zuen ahalak  
Hautsi beharrez  
Gure amentsen hegalak.*

*Agur bizi berri espantagarria  
Gauaren ixila, goizaren irria  
Nahi ginuzke bi bertsu  
Zuri kantatu  
Bihotz barnetik dena su.*

*Daukazun gaitzaren berria jakinik  
Utzia zaituzte laguna bakarrik  
Badakigu ez duzula  
Ahalgetzerik  
Ukanik duzun odola*

*Eskaintzen dautzugu amodiorekin  
Eskua harturik joaitea zurekin  
Biziaren izenean  
Maitasun eztiz  
Hartua duzun bidean.*

## **Au nom de la vie**

*Hymne à la vie et à l'amour dédié à tous les malades  
du SIDA contaminés par les transfusions sanguines.*

## **Sorgin dantza**

*Akelar mendiko talde bildugarriak  
Dantzan garabiltza. ja ja. sorgin aztiak  
Gerade guztiak ikaragarriak  
Poztutzen gaituju ju ju. sorginkeriak  
Akelartik Emiyora gau illunian  
Tximista bezala gatoz, tximista tartean  
Denoren aurrian, erretxan gaflian  
Andre mozkin Erregifla dabil aidian  
Akelar mendiko ..*

*Dunba brinka brinka brinko brinkoliflera ibis)  
Txibirin dunba brinka brinka brinko brinkuliflera  
Dunbra brinka brinko brinka brinko brinkuliflera.*

## **Danse des sorcières.**

*Nuit de Sabbat au sommet du Mont Akelar où les  
sorcières de tous âges s'en donnent à cœur joie.*

## **Bakea**

Munduari begira egon naiz bortzetan  
Zonbat jende bizi den lege zorrotzetan  
Bizientzat eraiki hil-harri hotzetan  
Hek ez dute sartzerik gerlako gauzetan,  
Bainan ez da bakerik heien bihotzetan.

*Errepika:*

*Egun, bakea, zutaz kantatzerat noe.  
Iragan aspalditik banuen gogoa;  
Gizonen zorionak zu zaitu erroa,  
Dntasun guzietan pare gabekoa,  
Bakan aurkitzen ziren lore arradoa.*

Jo arazten diete bi belaunez lurra,  
Ixilik egon diton, tinkatuz zintzurra,  
Itotzen badute're heien arrangura,  
Ez diete itzaltzen bameko su hura:  
Bake sortaraztaile txarra da beldurra.

Nahiz gerla tiroak urrundu aspaldi,  
Haren usain kiretsa bada hemen gaindi;  
Batean kalapitan hoinbertze alderdi,  
Edo langilen eta nagusien aldi,  
Egiazko bakerik nehon ez da sendi.

## **La paix**

*Hymne à la paix, extrait d'un poème du  
célèbre Bertulari Xalbador.*

# Amodioz bizi

*Goizetan erregiñatzen dira, udaberriko iduzkian  
Lore xuri ala gorriak, eguerdiko eroriak.  
Amodioz bizitzen dira baratzetako loreak  
Amodioz hiltzen dira, amorosaren eskuan;  
Elizetako aldaretan.*

*Milaka xori alagerak, primaderaren heltzian,  
Ber pizten aien kantuetan, hegaltatzen zeruetan  
Amodioz bizitzen dira, alageratzen sasiak;  
Amodioz hiltzen dira, malgortzen ditu neguak,  
Ixiltzen aien kantuak.*

*Aski urrats egin onduan, lurreko bide luzetan,  
Askasi edo aizo lehen, goiz batez dira lokartzen.  
Amodioz bizitzen gira, eskuz esku, bihotz bihotz.  
Amodioz hiltzen dira, bakartasunaren ohean,  
Orroitzapenen besotan.*

*Aien begiak zilar bizi, barneko suaz beterik;  
Aien bihotza zoin den argi, itsas urdiña iduri.  
Amodioz bizitzen dira, gordatzen beren nigarrak;  
Amodioz hiltzen dira, ez dira seme gaixtoak,  
Poetak abertzaleak.*

*La vie, la mort, dans la nature tout n'est qu'Amour.*

## **Haurtxo Ttikia**

*Haurtxo ttikia seaskan dago  
Zait iduri aingerua lo.  
Xakur handia etorriko da  
Zuk ez badezu egiten lo.  
Ene maitea, ene pottolo  
Eginaguzu lo  
Horrela gatik ene maitea  
Eginaguzu lo.*

## **Le petit enfant**

*Berceuse Basque immortalisée par Luis Mariano.*

## **Kantuz**

*Lehengo denboretan ilhun Nabarrean  
Aditzen zen ardura kantuz xarramelan  
Ezkualdun bat zoala aitzura bizkarrean  
Iziaraziz sorgin laminak bazoan gauean  
Larrazkenian hegoa jaustean menditik  
Eskualdunek orduan kantatzen gogotik  
Gazte edo zaharrak maingu izanak gatik  
Dena kantuz aditzen ziren gauaz bortaintzinetik  
Kanbiatu dira modak kantuen lekuan  
Berribilen azantzak ditugu gauean  
Kantuz aditzekotan espres beharda joan  
Hortako gira gu kantuz hasi hortako etorri  
Kantuz ar gindaizke beti kantuz nahi ginuke bizi  
Kantuz jendea atzarriz kantuz beti goazi  
Izan gaiten hemeretzi ehun ala bederatzi aise edo  
Nekez ari kanta dezagun beti.*

## **En chantant**

*Comme au temps jadis, que l'on soit seul, cent ou neuf,  
qu'on le fasse facilement ou difficilement allons  
toujours en chantant.*



## **Haurtxo Ttikia**

*Haurtxo ttikia seaskan dago  
Zait iduri aingerua lo.  
Xakur handia etorriko da  
Zuk ez badezu egiten lo.  
Ene maitea, ene pottolo  
Eginaguzu lo  
Horrela gatik ene maitea  
Eginaguzu lo.*

## **Le petit enfant**

*Berceuse Basque immortalisée par Luis Mariano.*

## **Coros suecos**

Eskerrak ematen dizkagu  
Guk jaun ongi bati  
Zor handiak dizkagu guk  
Jaun oni.

Desiratutzen dizkagu  
Egun onak berari  
Osasunez bai bizi bedi  
Emazte txukun lirana, seme alaba  
ugari  
Zuen etxean, bake usaia, arrotzenak  
ere ihes igorri  
Jainkoa begizu hori, bai Amen Amen  
Hala izan bedi

## **Chœur Suedois**

*Chœur extrait du folklore Suedois et  
chantant les  
louanges d'un maître de maison  
hospitalier.*

## **Zer?**

Gu munduko desterratuak  
Lau haizetarar hedatuak  
Zer izanen da gure geroa ?  
Nork erranen dauku norat joan ?  
Nork erranen daut norat noan ?

Hemen gure artean bizi  
Ez hadila ba izi  
Ez dut iñor utzi  
Sekulan laguntzarik eman gabe  
Hemen izanen duk bake  
Izanen duk lan  
Jan eta edan  
Aterbe bat gauean  
Hire arrazako lagunak  
Ehaiz bakarrik munduan  
Ustegabean  
Gabetasunean  
Galdurik bide-etan

Bertzen berri nork erran ?  
Zorigaitza nun ote da ? Han?  
Han urrun ? edo gure Bortan ?  
Nor dago so ? Nor zain ?  
Guk'e so egiten dugua ?  
So egiten mundurat  
Zer berri den ote ?  
Ahalge ba izan behar ginuke  
Hola utzirik debalde  
Gizontasuna, anaitasuna.  
Hori zendako ote?  
Politika gezurraren alaba  
Urguluntzi batzuen harma  
Heien nahia, enganatzea  
Xehen IZORRATZEA ... !  
  
Politika, gezurra dirua ohoria  
Gauza baliosak ..  
Justizia aldiz  
Nork daki zer den gauza hori ?  
ZER ? mundua den bezala utz ?

ZER ? otsoak beti artzain ?  
EZ! hori EZ!

Atzar, atzar bai Eskualdunak  
Lota gauden gizonak  
Beha bazterrerat  
Ikusiz zer gertatzen den  
munduan  
Lehenik gure auzoan.  
Zer eta nola, egin daiteken han  
Has gaiten ba lanean  
Gure baitan baitago finkatua  
Pobreen etorkizunâ  
Heriotzean dauden guzien  
Esperantxa gutan da.

## **Comment?**

Appel à une prise de conscience  
collective de façon à  
ne plus laisser le monde être guidé par  
des gens n'ayant en vue que leur intérêt.

## **Kitolis**

*Nere izena Kitolis, itsasorako jaioa  
Ez ur handiko arraina nere aitakin mazira  
Txiki txikitan oitua han galdu neban semea  
Legor haizea gau hartan jasa genduen triketa  
Haize bonbada gogorra ta popaz gora txanela  
Eutsi ikomes maitea alperrik aita ezin dut  
Itsasoak urak andi ezta ondorik ageri  
Pasako nintzake andik maitea ikustea gatik  
Maitasun ta oinazea bihotz barrendik datorzkit  
Itsas zabalak beretzat nahi ote daben bildur naiz  
Arrantzale maitea ezzaite ez aztu nerekin  
Laster da gure pesta andre marirena  
Nai det zure txanela ikusi aurrena  
Nola nasa ertzerat ureratzen duzun  
Nere eskuan zurea estutzen dotala andik antiguara  
Etorri zeralako gogoz eskerrak emaiterat  
Ikusi nuen loria eguzkiaren beroten  
Iu zinala iruditu ezan da nere besotan  
Ni banitzake iguzkia zu berriz egon loretan  
Gabian ere zuri begira beti dardar argi sutan.*

## **Kitolis**

*Chœur retraçant la vie périlleuse des marins au siècle  
dernier et évoquant la mort d'un jeune pêcheur et la  
foi de son père.*

## **Zeruko xoriak bezala**

*Xoriñoak betiko hitzez du ikasten  
Ohantzetik bere baitarik hegaldatzen  
Haurtxoñoari eskuara amak erakusten  
Oihanetan daude xori guzitarik  
Denek batian kantatzerat jaunak bildurik  
On-hart gaitela berdiñak ez izanik  
Elgarrekin joan gaitela zerutik lano kentzerat  
Herriko xori maiteak herrian bizi diton  
Udaberriko liliak berriz sortzen ari dira  
Eskuz esku ama lur ederra dugu eginen.*

## **Les oiseaux du ciel**

*Unissons-nous aux oiseaux du ciel pour chasser les  
nuages que le soleil brille pour tous dans notre pays.*

## **Ume eder bat**

*Ume eder bat ikusi nuen  
Donostiako kalean  
Hitz erditxo bat hari esan gabe  
Nola pasatu parean  
Gorputza zuen liraña eta  
Oinak zabiltzan airean  
Pollitagorik ez dut ikusi  
Neure begian aurrean  
Galai gazteak galdatzen dute  
Angeru hori nun dago  
Nere maitea nola deitzen den  
Ez du iñortxok jakiago.*

## **Une belle fille**

*Chant retraçant la première rencontre d'un jeune  
homme avec une demoiselle pour qui il a le coup de  
foudre dans les rues de San Sebastien.*

## **Mendirik mendi**

Mendizaleak aurrera, goazen

Mendi gallurrera.

Gogo soinak esnatzerat

Aupa goazen bide txigorrez

Beti gora maldetatik

Ederra da gure herria

Maite dugu bihotzetik

Ez da lurrean hoberik

Goazen mendirik mendi

Baserritik baserrirat

Erranez alaitasuna

Laster datoz bai anaiak gurekin.

## **Par monts et par vaux**

*Invitation, à une promenade dans les douces  
montagnes du Pays Basque.*

## **Donibane Garazi**

*Zubi azpitik doan ura eztiki doa aintzina  
Arrainak goizetik jauzika barrandan ulitxen begira  
Elizan herriko zaintzale, han dugu Donibane.*

*errepika:*

*Agur, agur, Donibane Garazi  
Euskal Herriko guziko parabisuari  
Bortz zubiren erdian zuk ederki  
Paregabezko herri izena merezi  
Egun oraz nago xora!urikan bizi  
Behatuz zuri hurbil dauden herrieri.*

*Beraz zutaz urrun ez naiteke mentura  
Nola ez aipa zuharpeta udan lorez apaindua  
Dener ongi ethorri dauka euskalduner edo bertzela  
Nehor iragan ez ditake, hura ikusi gabe.*

*Dantzari ta kantari onak dire zinez Garaztarrak  
Fandangotan zango arinak bai bestatzale hoberenak  
Aspaldi danik fama dute, ta gora Donibane !*

## **Saint Jean Pied de Port**

*Bonjour à toi, Saint Jean Pied de Port !  
Merveilleux paradis  
De notre Pays Basque!*